



EUROPAR BATASUNAREN HERRIALDEEN, ISLANDIA, LIECHTENSTEIN ETA NORVEGIAREN GIDABAIMENAREN TRUKEA

BETEBEHARRAK

- ESPAINIAN BIZILEKUA IZATEA
- ARAUDI ESPAINIARRAK EZARRITUTAKO ADINA IZATEA

IZAPIDE HAU BORONDATEZKOA DA ETA EDOZEIN TRAFIKOKO PROBINTZIAKO BURUZAGITZATAN ESKA DAITEKE

AGIRIAK

- 1º ESKABIDEA:** Trafikoko Buruzagitzetan edo DGT-ren web orrian (www.dgt.es) dagoen inprimaki ofiziala, non bide judizialean zein administratiboan ebatzitako ebazpen judizialen batek gidatzeko eskubidea kendu ez dizuneko aitorpena zein eskatzen dizun mota berdineko edo murriztu, eten edo baliogabetu duten EB edo EEEko beste gidabaimen bat ez duzuneko aitorpena agertzen diren, eta Trafikoko Buruzagietan eskuagarri dagoen **ARGAZKI-TALOIA** beteta.
- 2º TASA II.3:** 28,30 €. Hiru era tasak ordaintzeko: internetez www.dgt.es helbidean, banku-txartelaz Trafikoko Buruzagietan eta kontu-korronteaz edo eskudirutan finantza-erakundeetan (791 inprimakia eskuagarri dago Buruzagietan eta hemen: www.dgt.es)
- 3º NORTASUNA ETA BIZILEKUAREN ZIURTAPENA:**
 - Indarrean dagoen Nortasuna Agiri Nazionala edo AIZ edo pasaportea eta truke-eskabidea izapidetzen duzun Buruzagitzak eskatuko dizun beste edozein agiri.
- 4º ERKIDEGOKO GIDABAIMENA:** indarrean dagoen jatorrizkoa eta fotokopia.
- 5º ARGAZKIA:** Atzealde lisoko 32 x 26 mm.eko jatorrizkoa, aurretik hartuta, buru estalgabetuaz eta kristal iluneko betaurrekorik gabe edo pertsonaren identifikazioa eragotzi edo oztopa dezakeen bestelako arroparik gabe.
Erlijioa dela-eta ilea estalita daramaten eskatzaileak badaude, beloaz eginiko argazkiak jasoko daitezke baina, onartuak izateko, derrigorrezko baldintza hau bete behar da: aurpegiaren obaltoa ilearen sortzetik kokotsera arte guztiz estalgabetuta egon behar da, pertsona identifikatzea galarazi edo oztopa ez dezaten.

EGOERAK BEREZIAK

ORDEZKARIAK: Agiriak baimenaren titularrak aurkeztu ezean, ordezkaritzat joko duen pertsonak bere identifikazio-agiri ofiziala zein interesdunak emateko ahalmena aurkeztu behar izango ditu izapidea egiteko, non doakotasuna agertzen den.



MINISTERIO
DEL INTERIOR



Erroldatze-helbide eta EJGZko frogagirien aurkeztu ordez, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak informazio hori telematikoki ziurtatzeko berariazko baimena eman daiteke. Horretarako, izapide-eskabideko formularioan dagokion laukitxoa markatu, edo egoitza elektronikoan edo Trafikoko Buruzagitzetan eskuragarri dagoen berariazko baimen-formularioa bete behar duzu. Informazio onargarria jasotzen ez bada, egin daitekeen konponketak agiriak aurkeztea behar izango du.

(Eguneratua: 22/06/2018)